

Prentsa oharra

Nota de prensa



Loiola eta Melodiko bizilagunek dagoeneko Bertakoen baimena eska dezakete

TAO gune berrien kontrola datorren maiatzaren 1ean hasiko da

Donostiako Udalak abian jarri du Loiolako sektore berriko (5.3) eta Aiete auzoko Melodi inguruko aparkaleku arautuen Bertakoentzako baimenak eskatzeko tramitazioa. Araudia betetzearen kontrola maiatzaren 1etik aurrera hasiko da.

Pilar Arana Mugikortasun zinegotziak nabarmendu duenez, Loiolan erregulazio eremu berria ezartzearen helburua bizilagunen bizi kalitatea hobetzen jarraitzea da, bertakoei aparkatzeko plazak bermatuz, bai eta zenbait kaletan ibilgailuak txandakatzeko errotazio plazak ere.

Aranak azpimarratu du, gainera, Melodiren erregulazioari dagokionez, auzotarren eskaerari erantzuten ari dela, gaur egun inguru horretan sortzen den *ertz efekturako* irtenbide bat emanez, eta bide batez Aieteko anbulategiaren inguruko aparkalekua ere hobetzen dela.

Datozen asteetan, eremu horietako bizilagunak erregulazio berriari eta baimenak eskatzeko prozesuari buruzko informazio guztia jasotzen hasiko dira beren etxeetan. Gainera, loiolatarrek euren zalantzak argitzeko aukera izango dute datorren martxoaren 30ean, 19:00etan, Loiolako Kultur Etxean egingo den bilera informatibo batean.

Ez da txartelik erabili beharko

Aldaketa horiek egiteko ordenantza aldatu zenetik, txartel fisikoa baztertu egin da, baimendutako bertakoen ibilgailuen identifikazio gisa, aparkalekua kontrolatzeko sistema berriek baieztapenak telematikoki egiteko aukera ematen baitute.

Aldaketa horrek ez dio Loiolako sektore berriari bakarrik eragiten, hiri osoari aplikatuko baitzaio. Beraz, une honetatik aurrera ez da bereizgarri beharko, eta, horrela, eskaera berrietarako eta hemendik aurrera egiten diren bajetarako izapideak arinduko dira, ez baita beharrezkoa izango txartela jasotzea edo itzultzea.

Horrela, aparkatzeko baimena egiaztatzen duten txartelak emateari utziko zaio eta, horren orde, baimena eman dela jakinaraziko zaio herritarrari. Gainera, ez da beharrezkoa izango haizetakoari itsatsita mantentzea TAO ordenantzaren azken aldaketa indarrean jarri aurretik emandako txartelak.

Prentsa oharra

Nota de prensa


5.3 sektorea – Loiola

Horrela, Loiola auzoa hiriko **5.3 Sektorea** izatera pasako da. Sektore horrek 875 plaza izango ditu, horietatik 137 bertakoentzat bakarrik, gune hauetan: Ariztigaña kalea, Atarieder plaza, Batxillardegi taldea, Hernio Mendiko kalea, Hipika bidea, Matxiñene, Urbasa Mendilerroa, Urbia eta Zubiondo bideak.

Errotazio mistoko 667 plaza (bertakoek ere aparkatu ahal izango dute) eta errotazio hutseko 16 plaza (15') ere egongo dira. Plaza horietan dagokion tiketa ordaindu beharko da.

Plaza gehienek 180 minutuko aparkaldia izango dute gehienez (gune berdea), Aralar Mendilerrokoek izan ezik, 90 minutuko gehieneko denbora izango baitute (gune gorri eta komertziala), eta saihezbideko taulen azpiko aparkalekukoek gehienez 540 minutuko iraupena izango dute.

Plaza horiez gain, mugikortasun murriztua duten pertsonentzat lege ezarritako plazak, motorrentzako plazak eta zamalanetarako plazak egongo dira.



Prentsa oharra

Nota de prensa

TAO Melodi

Loiolan TAO gune berria sortzeaz gain, ordenantza berria izapidetzearekin batera, Melodi kalearen inguruko hainbat bide arautu dira.

Horrela, Lazkano pasealekua eta Jose Olaizola kalea **San Roke 1.4** aparkalekuen sektorean sartuko dira, eta 87 plaza berri gehituko zaizkio; Melodi kalea eta Sanserreka eta Pio Baroja pasealekuak, berriz, **4.1 Antiguu** sektorean sartuko dira. Melodi kaleak 77 plaza izango ditu bertakoentzat eta Sanserreka Pasealekuak 14; Pio Barojak, berriz, 19. Era berean, bertakoentzako 37 plaza berri arautzeko aprobetxatu da Aizkorri eta Manuel V. Montalban kaleetan.



Prentsa oharra

Nota de prensa



Baimen eskaera

Herritarrei zerbitzu hobea eskaintzeko administrazioa digitalizatzeko bidean, Udalak bertakoen baimen eskaerak kudeatzeko sistema telematikoa bultzatu nahi du.

Hori dela eta, herritarrei gomendatzen zaie www.donostia.eus/tramiteak web orriaren bidez izapidetzea (beharrezkoa izango da BakQ ziurtagiri elektronikoa, Udalinfoko bulegoetan eska daitekeena), baina presentzialki ere egin ahal izango da eskaera, aldeztu aurretik hitzordua eskatuta, hiriko Udalinfoko edozein bulegotan (Easo, Arroka, Morlans edo Altza).

Baldintzak

TAO zona berriak tarifa arautua duten gainerako eremuen parametro berak izango ditu, eta baimena lortzeko hiriko gainerako eremuetako baldintza berberak bete beharko dira:

- Aparkalekua arautzen duten sektoreetako kaleren batean ohiko bizilekua finkatuta izatea eta bertan errolatuta egotea.
- Ibilgailu baten erabiltzaile izatea.
- Ibilgailua Udaren Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren eroldan alta emanda egotea (leasing kasuetan edo ibilgailua enpresak lagata dagoenean izan ezik).
- Gidabaimena indarrean izatea.

Edonola ere, udal aparkaleku baten titularrek ezin izango dute baimenik izan, beste sektore batean merkatarientzako plaza dutenek izan ezik. Gainera, eskatzaile eta ibilgailu bakoitzeko baimen bat emango da, gehienez, bi etxebizitza bakoitzeko.

Loiolaren kasuan, orain arte saihasbideko taulen azpian aparkatzeko baimen berezia zuten bizilagunek (zeharbidea bulegarizatze obren iraupenerako ezarria) baimen berria ere eskatu beharko dute, betiere aurreko baldintzak betez; izan ere, adierazitako baimenak indarra galduko du, erregulazio berriaren kontrola hasten denean.

TAO zerbitzu berria maiatzaren 1etik indarrean sartuko da

Udalak eremu berrietan seinaleak jartzeko eta makinak jartzeko lanak apirilean zehar egitea aurreikusten du, eta maiatzaren 1etik aurrera arau berria betetzen dela kontrolatzen hasiko da.

Hala, Loiola auzoak aparkalekua ordaintzeko 12 makina edo parkimetro berri izango ditu,

Prentsa oharra

Nota de prensa



eta Melodik, berriz, 3. Hala ere, mugikorreko aplikazio bidez ere ordaindu ahal izango da, hiriko gainerako lekuetan bezala.

TAO Donostian

Donostiak, gaur egun, araututako 15.641 aparkaleku ditu (2.941 bertakoentzat bakarrik), 5 eremu eta 15 sektoretan banatuta. Horiei datozen asteetan gehituko zaizkie Loiolako sektore berriko 875 plaza, Melodiko 200 plaza berri eta Heriz inguruko 37 plaza, eta guztira, 16.753 plaza arautuak izango dira hirian.

Dagokion tiketa ordaintzeko, Donostian 363 makina eskuragarri daude sektore desberdinetan banatuta, eta hauek ordaintzeko –txartelarekin edo dirutan–, kontsumitu gabeko zenbatekoetarako diru-zorro birtuala (desaparkatu) edo salaketak ordaintzeko funtzioak dituzte.

Parkimetroekin batera, ordainketa "[**ElParking**](#)" mugikorrerako aplikazio bidez ere egin daiteke. Gainera, ordenantza aldatuta, jada ez da beharrezkoa ibilgailuan tiket fisikoa jartzea, eta maiatzetik aurrera ezta txartelak jartzea ere.

Donostia, 2023ko martxoaren 24a